



T-4	1. Hauetatik zein da erretikulu endoplasmaticoaren funtzioa?	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Ca²⁺ ioien metaketa b- Mintz zeharreko proteinen sintesia c- Lipido-geruza bikoitzaren eraketa d- Erantzun guztiak zuzenak dira 				
T-4	2. Erretikulu endoplasmatico leuna oso garatuta dago...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Proteinen sintesi-tasa oso altua denean b- Azukreen sintesi-tasa oso altua denean c- Zelulak molekula toxiko ugari eliminatu behar duenean d- Zelula jariatzaileetan 				
T-4	3. Mintz-zeharreko proteina baten sintesian...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Derrigorrez bi seinale-sekuentzia egon behar dira b- Seinale-sekuentzia bat derrigorrez polipeptidoaren barruan kokatuta egon behar da c- Translokazioa amaitu ondoren proteina berria ez da askatzen: translokadorearen barruan geratzen da d- Guztiak TXARTO daude 				
T-4	4. Erretikulu endoplasmaticoan gaizki tolesten diren proteinak...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Txaperonen bidez esportatzen dira zitosolera b- Organuluan bertan degradatzen dira c- Zitosolera esportatzen dira eta proteasomaren bidez degradatzen dira d- Lisosometan degradatzen dira 				
T-4	5. Erretikulu endoplasmaticoaren jarduerari dagokionez...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Behin translokazioa amaitu ondoren, polipeptidoaren N-glikosilazioa gertatuko da b- Glikoproteina guztiek oligosakarido berbera azaltzen dute esportazio unean c- Azukreak banan-banan transferitzen dira dolikol molekula batetatik proteinara d- Guztiak erantzun zuzenak dira 				
T-4	6. Golgi aparatuari dagokionez, adierazpen hauetatik bat GEZURREZKOA da:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Golgi-ren konpartimentuetan entzima desberdinak daude b- Erretikulu endoplasmaticotik datozen produktuak trans aldetik ere sar daitezke Golgi-ra c- Eraldatzen ari diren produktuak besikulen bidez garraiatzen dira besikulen artean d- Golgi-ren trans aldetik askatzen diren besikula batzuk endosomarekin fusionatzen dira 				



T-4	7. Karbohidratoen sintesia Golgi aparatuaren funtzio nagusi bat da. Zehazki Golgi-an sintetizatzen dira:	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Glikoproteinak eta glikolipidoak b- Glikolipidoak eta proteoglikanoak c- Proteoglikanoak eta glikosaminoglikanoak d- Erantzun guztiak zuzenak dira 				
T-4	8. Golgi aparatuantz garraio erretrogradoa egiten duten besikulek garraiatzen dituzte...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Hidrolasa lisosomikoak b- Hidrolasa lisosomikoen hartzaileak c- Mintz plasmatikotik datozen molekulak d- Manosa-6-fosfato taldea aurkezten dituzten proteinak 				
T-4	9. Lisosoman degradatzen diren gaiak...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Organulu bat izan daiteke b- Fagozitatuko zelula bat izan daiteke c- Azido nukleikoak izan daitezke d- Guztiak erantzun zuzenak dira 				
T-4	10. Endosoma berantiarra eta lisosoma primarioak fusionatu ondoren...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Entzima lisosomikoen hartzaileak degradatuko dira pH azidoarengatik b- Entzima lisosomikoen hartzaileak organulu honetatik esportatuak izango dira besikulen bidez c- Entzima lisosomikoek eragiten dute hartzaileen degradazioa d- pHa jaisten da entzima lisosomikoen jarduerari esker 				
T-4	11. Trafiko besikularrean klatrinazko besikulak eraikitzen dira. Besikula hauek sor daitezke...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Mintz plasmatikoan b- Golgi-ren zisterna guztietan c- Soilik Golgi-ren cis aldean d- Erretikulu endoplasmatikoan 				
T-4	12. Hartzaileen bidezko endozitosian...	a	b	c	d
	<ul style="list-style-type: none"> a- Hartzailea alde estrazelularra geratuko da endosomaren lumenari begari b- Klatrinazko estaldurak eraikitzen dira c- Askotan hartzailea eta lotuta duen molekula banantzen dira endosomaren barruan d- Guztiak erantzun zuzenak dira 				